



Arartekoaren 2020R-218-20 Ebazpena, 2021ko martxoaren 3koa. Horren bidez Erriberabeitiko Udalari gomendatzen zaio programatzen dituen kirol eta kultura jarduketan tarifak ikuskatzeko. Udal-jarduerak antolatu eta zerbitzu publikoak ematen dituenean erroldatutako erabiltzaileek hobaria duten tarifak lor ditzakete eta aipamen hori ezabatu beharko litzateke.

Aurrekariak

1. Kexagileak Arartekoaren aurrean kexa bat jarri zuen. Horri jarraikiz, Erriberabeitiko udalerrian ematen ziren kirol eta kultura jardueratan parte hartu eta horiek erabiltzeagatik bi tarifa zeuden ezarrita, erabiltzailea udalerrian erroldatuta edo ez erroldatuta egotearen arabera, eta ez zegoen ados.

Kexagileak alegatutakoarekin bat etorriz, 2019ko udan udal-igerilekuetarako abonua eskuratu zuen eta kuota udalerrian erroldatutakoek ordaindu behar zutenaren bikoitza zen. Gainera, horiei, betiere, tarifa murriztua aplikatzen zitzaien. Azaldutakoa aintzat hartuta, jokabide berdina mantentzen zen programatzen ziren kirol eta kultura jarduera guztietarako. Hala, udalerrian erroldatu gabeko pertsonak kasu guztietan erroldatutakoei zegokien tarifa hobariduna baino zenbateko bikoitza ordaindu behar zuten.

Ukituak adierazi zuen ez zegoela ados tarifa horiek ezarri eta konfiguratzearekin, diskriminatzailea zela iritzi zuelako eta, beraz, udalaren zerbitzu publiko guztietan nagusitu behar den berdintasun-printzipioaren kontrakoak. Bere erreklamazioa, ordea, 2020ko urtarrilaren 23an ezetsi zen *“porque en el Ayuntamiento se prima que salgan las actividades y que vengan a ellas la gente del municipio, ya que ha ocurrido que ha habido gente del pueblo que no ha podido entrar a las piscinas por falta de aforo. Por ese motivo se aplica la bonificación a los empadronados en el municipio de Ribera Baja/Erribera Beitia.”*

2. Arartekoak informazioa eskatu zuen eta erantzuteko Erriberabeitiko Udalak erakundeari zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik tasari buruzko ordenantza fiskala aldatzeko espedienteko dokumentazioa bidali dio, aurretiazko komunikazio batekin batera eta hala dio:





“Las tarifas de las actividades son las mismas para personas empadronadas como para las no empadronadas, por lo que entendemos que no hay ningún tipo de discriminación.

Sirva como ejemplo: Por una actividad de duración anual y que se lleve a cabo dos días a la semana, todas las personas usuarias tienen que pagar 200 euros y el Ayuntamiento da una bonificación o ayuda económica a las personas que se encuentran empadronadas en el municipio, según la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a los municipios, provincias e islas, las potestades reglamentarias y de auto organización (artículo 4.1a), competencia cuyo ejercicio atribuye al Pleno (art. 22.2 a y 33.2 d). Manifestación de esta potestad reglamentaria son las Ordenanzas.

Hago mención al artículo 55 del Texto Refundido 781/1986, de 18 de abril, que dice: “En la esfera de su competencia, las Entidades locales podrán aprobar Ordenanzas y Reglamentos y los Alcaldes dictar Bandos. En ningún caso contendrán preceptos contrarios a las leyes.

Por lo que este Ayuntamiento interpreta que está haciendo lo correcto al no utilizar el empadronamiento como un criterio jurídicamente asumible para establecer diferenciaciones en el importe de las tarifas a abonar por el uso de un servicio público.”

2020. urterako ordenantza fiskala aldatzeko espedientearen barruan azpimarragarria da 2017ko irailaren 12an idatzitako txosten tekniko-ekonomikoa, Erriberabeitiko Udalaren kirol eta kultura instalazioen kostua aztertzeari buruzkoa. Horretan honako hau ondorioztatzen da: *“teniendo en cuenta los costes globales incurridos en cada centro y los servicios prestados, cabe concluir que con carácter general las tasas propuestas financian sólo parcialmente cada uno de los diversos servicios deportivos y culturales que el Ayuntamiento pone a disposición de los ciudadanos, sin que aparentemente excedan el importe de su coste”.*

Txostenak 10. orrialdean zehaztutakoaren arabera, *“el grado de cobertura de los costes no alcanza en el mejor de los casos el 39% (siendo en algunos supuestos muy inferior), de forma que el importe de las tasas, en su conjunto, en ningún caso excede del coste total previsible del servicio”.*





Era berean, espedienteak 2018ko aurrekontuko likidazioari dagokion gastu eta diru-sarreraren banaketaren kopia du, kontabilitate-zerbitzuak egin ostean. Horri erreparatuz, zerbitzuen balantze negatiboa ageri da. Izan ere, 2018. urtean guztira 211.673,82 euro gastatu ziren eta 65.846,66 euro sartu.

Aldaketaren espedienteak berariaz justifikatzen du *“la necesidad de modificar la Ordenanza fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, publicada en el BOTHA número 50, de 27 de abril de 2015, como consecuencia del informe de la Secretaria en el que se hace constar que la Ordenanza vigente no se adecúa a las tasas que se vienen aplicando a las diferentes actividades culturales, deportivas y de uso de las instalaciones municipales, bien por no estar establecidas en la ordenanza o bien por no proceder su aplicación por entenderse no adecuadas...”* (zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasari buruzko ordenantza fiskala aldatzeko erabakiaren proposamena, jarduneko alkateak 2019ko irailaren 4an sinatutakoa).

Nolanahi ere, dokumentazioari jarraikiz, aurreratu behar da pertsona erroldatuentzako tarifa hobaridunak eztabaida sutsua eragin duela, bai Udalbatzan, baita udal-zerbitzuen erabiltzaile partaideen artean. Hala, ordenantza fiskala aldatzeko prozeduraren barruan, jendaurrean jartzeko epean alegazioak eta iradokizunak aurkeztu dira.

Aurrekoari eutsiz, Udalbatza Osoak 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran aztergaien zerrendako bigarren gaian erabaki zuen *“dada cuenta de las alegaciones presentadas en tiempo y forma y del Dictamen de la Comisión Informativa Especial de Cuentas y Permanente de Economía y Hacienda de fecha 7 de enero de 2020...”*, , besteak beste, hobariaren inguruko alegazioak ezestea eta tasari buruzko ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko berariaz onestea.

Erakunde honi informazio-batzorde bereziari dagokion irizpenaren kopia ez zaio helarazi. Dena den, ordenantza behin betiko onesteari buruzko erabakiaren ziurtagiria aurkeztu da eta alegazioen sustatzaileek banan-banan jaso zituzten erantzunak erantsi zaizkio, hortaz, anonimo bihurtu ondoren, ezesteko berriazko oinarriak zehatz daitezke.





Halaber, Erriberabeitiko Udalak bere webgunean argitaratuta du 2020ko urtarrilaren 13an egindako ohiko bilkuraren akta eta, ondorioz, saioan izandako eztabaida zehatz-mehatz ezagut daiteke. Zerbitzuengatik ordaindu beharreko ordain ekonomikoaren izaera juridikoan, tarifa berria udalerrian indarrean sartzeko egunean eta hobariduna izeneko tarifaren konfigurazio berrian funtsatu zen.

Zehazki, urtarrilaren 13ko saioan tarifari buruzko lau alegazioak ezestea erabaki zen eta oinarriak ondorengo hauek izan ziren:

-"Desestimar la alegación (...) para no exigir estar empadronado en el municipio para obtener descuentos en la utilización de los servicios prestados por el Ayuntamiento; y diseñar bonificaciones, subvenciones o ayudas a los usuarios que atiendan a su capacidad económica y demás circunstancias legalmente previstas, y no a su lugar de residencia. Se desestima la alegación por 4 votos a favor (...), 1 voto en contra (...) y 1 abstención (...argumenta que no cree que haya que desechar que los no empadronados paguen algo más, sino que en su justa medida se les podría pedir más, no igual el doble) porque ha habido gente del pueblo que no ha podido entrar en las piscinas por falta de aforo. Por este motivo se aplica la bonificación a los empadronados en el municipio de Ribera Baja/Erribera Beitia."

-"Desestimar por 3 votos a favor (...), 2 en contra (...) y una abstención la alegación presentada (...), sobre reclamaciones para que no se suba a los no empadronados el precio al doble por la realización de actividades en el polideportivo (pádel, patinaje y otras actividades) y solicitan que se modifique la propuesta inicial en ese sentido y se disminuyan los precios para los no empadronados, recuperándose el precio normal para todas las actividades. Se desestiman porque el Ayuntamiento no quiere que las actividades deportivas municipales estén llenas de gente que no sea de aquí y salgan adelante. Desde el Ayuntamiento se prima que salgan las actividades y que vengan a ellas la gente del municipio."

2020ko otsailaren 21ean Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu zen zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasei buruzko ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onestea.





Gogoetak

1. Kexa honek zalantzan jartzen du udal-zerbitzu publiko berdina erabiltzeagatik tarifa ezberdinak jartzea, diskriminazioa delakoan, arrazoa ez baita zerbitzu publikoen erabiltzaileek izan dezaketen gaitasun ekonomikoa. Horrenbestez, zerbitzu publiko guztiak ematean nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioaren aurka doa.
2. 2019ko udan udal igerilekuak erabiltzeko kexagileak bonua erosi zuenetik kexa aurkeztu zuenera arte araudi-aldaketa argitaratu zen eta azertu behar da, nahiz eta Arartekoaren iritziz kexaren xedea ez duen aldatzen.
3. 2019ko udan, kexagileak udalean erreklamazioa aurkeztu zuenean, 2015eko apirilaren 27ko 50 zenbakidun Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako ordenantza fiskalaren idazkera indarrean zegoen, eta berariaz nahiz zuzenean kirol jarduerak eta zerbitzuak, hala nola udal igerilekuak, erabiltzeagatik bi tarifa ezberdin finkatzen ziren: *“errol datutakoak”* eta *“errol datu gabeak”*. Ordenantzak berak zehaztutakoaren arabera, *“epigrafe honetan xedatutakoetarako, errol datua da Erriberabeitiko udal biztanle erroldan izena emanda dagoena udal igerilekuetako abonamendua eskatu baino bi hilabete lehenagotik, gutxienez”*.

Zehatz-mehatz esanda, ordenantzaren eranskinak 1. epigrafean udal igerilekua erabiltzeagatik tarifak honako moduan finkatzen zituen:

TARIFA	ERROLDA-TUTAKOAK	ERROLDATU GABEAK
Eguneko sarrerak		
Haurrak (3 urtera arte) / gurasoekin edo tutoreekin	0	0
4 eta 14 urte bitarteko haurrak	1,50 euro	1,50 euro
15 urtetik aurrerako helduak	4,00 euro	4,00 euro
Abonu pertsonalak		
Banakakoa	25,00 euro	40,00 euro
Familia-abonuak	40,00 euro	70,00 euro



2020ko otsailaren 21ean egun indarrean dagoen ordenantza fiskalaren aldaketa argitaratu zen. Tokiko erakundeak onartutakoaren arabera¹, hasitako prozedurarekin kultura eta kirol jarduketengatik nahiz udal instalazioak erabiltzeagatik aplikatzen zitzaizkien tasak ordenantza fiskalaren aurreikuspenei egokitu nahi zitzaizkien. Arau horrek bi tasen izenak aldatu ditu eta 1. epigrafean, udal igerilekua erabiltzeari dagokionean, honako ordain-tarifak zehazten ditu:

KONTZEPTUA	TASA	TASA
Eguneko sarrerak		
Haurrak (3 urtera arte) / gurasoekin edo tutoreekin	- €	- €
4 eta 14 urte bitarteko haurrak	4,00 €	2,00 €
15 urtetik aurrerako helduak	6,00 €	4,00 €
Taldeak		3,00 €
Abonu pertsonalak		
Banakakoa	60,00 €	30,00 €
Familia-abonuak	100,00 €	50,00 €

Eta ondorengo hau zehazten da:

Abonamenduak kiroldegian horretarako prestatutako lekuan aterako dira; izena emateko inprimakia bete beharko da, eta ordainketa makinaren bidez egin. Eguneko sarreren kasuan, kiroldegiko makinetan erosiko dira.

Udalak eskubidea izango du abonamendurik ez emateko, baimendutako edukiera gaindituko dela iruditzen bazaio.

Udalak eskubidea izango du eguneko sarrerarik ez saltzeko, baimendutako edukiera gaindituko dela iruditzen bazaio. Halako kasuetan, gehienez ere sarreren ehuneko 10 salduko du.

Eguneko sarrerak egun osorako balioko du. Sarrera pertsonalizatu egingo da, kanpora irten nahi duenak egun berean berriz sartzeko aukera izan dezan.

¹ Zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasari buruzko ordenantza fiskala aldatzeko erabakiaren proposamena, jarduneko alkateak 2019ko irailaren 4an sinatutakoa.



Familia abonamenduak pertsona hauek hartuko ditu barne: ezkontideak edo izatezko bikotekideak eta ezkontide edo izatezko bikotekideen seme-alabak, baldin eta 18 urtetik beherakoak badira edo 25 urtetik beherakoak izanda ikasketa arautuak egiten ari badira.

Erroldatutako en familia abonamendua atera ahal izateko, kide guztiek udalerrian erroldatuta egon behar dute.

Oharra: Erriberabeitian erroldaturiko familia ugariak eskatutako familia abonamenduek ehuneko 50eko hobaria izango dute (hala jasotzen du Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak).

Instalazioa erabili nahi duten taldeek zenbait egun lehenago egin beharko dute eskaera, eta udalaren baimena jaso beharko dute. Baimendutako taldeek 17:00ak arte erabili ahal izango dute instalazioa.

Arauketa hau tasa guztietarako zehaztapen erkideekin osatzen da eta udal kirol instalazioak erabiltzeari lotuta dago. Hala dio:

Tasaren gainean hobaria jaso ahal izateko, eskatzaileak udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatu beharko du, udalerrri horretako zergaduna izan beharko du edo gutxienez ehuneko 30eko desgaitasun maila izan beharko du aitortuta.

Epigrafe honetan xedatutakoetarako, erroldatua da Erriberabeitiko udal biztanle erroldan izena emanda dagoena udal igerilekuetako abonamendua eskatu baino bi hilabete lehenagotik, gutxienez.

Zergaduntzat jotzen dira udalerrian zergak ordaintzen dituzten pertsonak, bai eta haien lehen eta bigarren mailako senideak ere.

Udalarekin zorretan dauden pertsonak ezingo dute hobaririk jaso, nahiz eta horretarako baldintzak bete, eta tasa osorik ordaindu beharko dute.





Ondorioz, baketsua izan beharko luke toki erakunde hori errolda irizpide gisa erabiltzen ari dela zerbitzu publiko bera erabiltzeagatik ordaindu behar diren tarifen zenbatekoa bereizteko. Izan ere, udalerrian erroldatuta dagoen pertsonak, tarifa hobaridunari lotuta, kuota asko murrizteko aukera du; debekatzen zaio, ordea, udalerrian erroldatuta ez dagoen zerbitzuaren erabiltzaileari.

4. Azaldutakoarekin bat etorritz, Arartekoak, ezinbestez, aztertu behar du, auzotasuna irizpide nahikoa ote den udal-zerbitzu publiko baten erabiltzaileek ordaindu behar duten kuotan tratamendu desberdina ematea justifikatzeko edo, aitzitik, erroldatutako eta erroldatu gabeko pertsonen arteko bereizketa hori artifiziosua eta justifikaziorik gabekoa den eta, horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren (EK)² 14. artikulua jasotzen duen berdintasun-printzipioaren aurka doan.

Azpinarratu behar da Erriberabeitiko Udalbatza Osoak zerbitzuak eta jarduerak behin erabakita, udalaren jarduna eremu arautuaren barruan kokatzen dela eta, horrenbestez, legezketasunaren printzipioaren menpe dagoela.

Gaiari eutsiz, halaber, abiapuntua hurrengo hau da: *"Hiritar eta botere publikoak Konstituzioaren eta araugintza juridikoaren menpean daude"* (EK, 9. art.).

5. Berdintasun-printzipioa aztertzerakoan, Konstituzio-auzitegiaren etengabeko doktrina finkatua hartu behar da abiapuntutzat; izan ere, horrek adierazten du tratamendu-desberdintasuna onar daitekeela hori irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarritzen denean.

Zentzu horretan, Konstituzio-auzitegiak adierazi izan du berdintasun-printzipioak ez dakarrela nahitaez kasu guztietan lege-tratamendu berbera ematea, garrantzi juridikoa duen edozein elementu bereizgarri bakartuz. Hortaz, gai zehatz baten arauketari dagokionean araudi-tratamendu desberdina emateak ez du beti esan nahi Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako agindua urratzen denik. Izan ere, soilik hartuko dira arau-haustetzat bereizketa hori egiten denean berdinak diren egoeren artean, horretarako justifikazio objektibo eta zentzudunik eman gabe. Azken batean, berdintasun-printzipioak arbitrarioak diren edo justifikazio zentzudunik ez duten bereizketa-elementutzat har diren elementuak erabiltzea debekatzen du. Beste era batera esanda, berdintasun-printzipioak debekatzen dituen desberdintasunak artifiziosuak edo justifikaziorik gabekoak

² EK. 14.artikulua. *"Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta"*.

izan daitezkeenak dira, hain zuzen ere, irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarrituta ez egoteagatik, oro har onartutako irizpide edo balio-judizioen arabera.

6. Erriberabeitiko Udalak udal kirol zerbitzuen erabiltzaileei eskatzen dien ordain ekonomikoa juridikoki tasa gisa kalifikatu du, hau da, ordain ekonomikoari lege-eta zerga-izaera eman dio.
7. Zergen arloan legearen erreserba-printzipioak garrantzi berezia du. 58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergei buruzko Orokorrak, 8. artikuluan zerga-legearen erreserba-printzipioa arautzen du eta, bestea beste, zergen funtsezko elementuei eta zerga-irabaziei eragiten die.

Horrenbestez, d) letrak adierazitakoaren arabera, legez arautuko da *“el establecimiento, modificación, supresión y prórroga de las exenciones, reducciones, bonificaciones, deducciones y demás beneficios o incentivos fiscales”*.

Dena dela, finantza-autonomiari buruzko printzipioa aintzat hartuta, errespetatzeko tokiko erakundeek beren zergak konfiguratzean nolabaiteko aukera-gaitasuna izan behar dute, baina ordenamendu juridikoan ahalmena ez da absolutua. Aitzitik, tokiko erakundeek eman ditzaketen onura fiskalei buruzko autonomia mugatuta dute. Hala, Tokiko Erakundeei buruzko Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 9.1 artikuluan honako hau dio: *“No podrán reconocerse otros beneficios fiscales en los tributos locales que los expresamente previstos en las normas con rango de ley o los derivados de la aplicación de los tratados internacionales”*.

No obstante, también podrán reconocerse los beneficios fiscales que las entidades locales establezcan en sus ordenanzas fiscales en los supuestos expresamente previstos por la ley. En particular, y en las condiciones que puedan prever dichas ordenanzas, éstas podrán establecer una bonificación de hasta el cinco por ciento de la cuota a favor de los sujetos pasivos que domicilien sus deudas de vencimiento periódico en una entidad financiera, anticipen pagos o realicen actuaciones que impliquen colaboración en la recaudación de ingresos.”



Hau da, tokiko erakundeek ezin dute onura fiskalik zehaztu, legeak edo nazioarteko tratatuak aurrez ikusten ez badu.

Onura fiskalak dira, besteak beste, hobariak, murrizketak eta salbuespenak. Tokiko erakundeek onura horiek ordenantza fiskaletan sartzeko legeak berariaz aurrez ikusi beharko ditu.

8. Ordaindu beharreko tasen zenbatekoan bereizketak egitean, erroldatzea ez da juridikoki onar daitekeen irizpide bat. Hori da epaitegien doktrina zabal batetik eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaz atera daitekeen ondorioa.

Zergei dagokienez (hori da tasei dagokien eremua), berdintasun-printzipioa kontribuzio-ahalmenaren printzipioari dago lotuta, hori ezartzen duelako berariaz Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua; haxe dio artikulua horrek: *“Guztiak gastu publikoari aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidetaren arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango.*

Horregatik, bi printzipio horiek konbinatzeak ahalbidetuko du tratamendu berezia ematea pertsonari, hain zuzen ere, bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Arabako Lurralde Historikoko zerga-legeriak beren-beregi jasotzen du ondorio berbera; zehazki, haxe preskribatzen du: *“Zerga-sistemaren antolamendua, zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarritzen da...”* (Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 2.1 artikulua). Artikulu horrek ez du amaitzen zergak ordaindu behar dituztenen gaitasun ekonomikoa aipatzen; izan ere, ezartzen jarraitzen du, horrez gain, hauek direla zerga-sistema antolatzeko oinarriak: *“ekonomikoan eta justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan oinarritzen da.*

Tokiko ogasunak arautzen dituen foru araua da Arabako Lurralde Historikoko udalerrietako baliabide-sistema arautzen duena. Foru arau horrek, tasak ordaintzera behartuta dauden kontzeptua arautzen duenean (23. artikulua), ez du egiten erroldatutako eta erroldatuta ez dauden arteko bereizketarik. Izan ere, erroldatzea ez da Tokiko Ogasunen Foru Arauak tasak zenbateko ezartzen duen irizpide bat. Horri dagokionez, 24.4 artikulua udalerririk gaitzen ditu kontuan har ditzaten gaitasun-ekonomikoko irizpide orokorrak. Zehazki, artikulua





horrek hauxe ezartzen du: *“Para la determinación de la cuantía de las tasas podrán tenerse en cuenta criterios genéricos de capacidad económica de los sujetos obligados a satisfacerlas”.*

Beraz, ordenantza batek tarifa ezberdinak baditu, eta horiek ordaindu behar dituzten subjektu pasiboen zerga-gaitasunaren irizpide orokorretatik at, bestelako inguruabarretan oinarritzen badira, gehiegikeriaz jokatzeko ari da. Nahiz eta tokiko erakundeek aukera izan *“establecer y exigir tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, así como por la prestación de servicios públicos o la realización de actividades administrativas de competencia municipal que se refieran, afecten o beneficien de modo particular a los sujetos pasivos”*, udal-ordenantzak tasa xedatzean idatzi beharko du *“en los términos previstos en esta Norma Foral”* (20. artikulua).

Zehatz-mehatz esanda, artikulua hala dio:

“1. Previo acuerdo de imposición y aprobación de las Ordenanzas correspondientes, los Municipios del Territorio Histórico de Álava, en los términos previstos en esta Norma Foral, podrán establecer y exigir tasas por prestación de servicios o realización de actividades de competencia municipal que se refieran, afecten o beneficien de modo particular a los sujetos pasivos.

En todo caso, tendrán la consideración de tasas las prestaciones patrimoniales que establezcan los municipios de este Territorio por:

A) La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

B) La prestación de un servicio público o la realización de una actividad administrativa en régimen de derecho público de competencia municipal que se refiera, afecte o beneficie de modo particular al sujeto pasivo, cuando se produzca cualquiera de las circunstancias siguientes:

a) Que no sean de solicitud o recepción voluntaria para los administrados. A estos efectos no se considerará voluntaria la solicitud o la recepción por parte de los administrados

- Cuando venga impuesta por disposiciones legales o reglamentarias.





- Cuando los bienes, servicios o actividades requeridos sean imprescindibles para la vida privada o social del solicitante.

b) Que no se presten o realicen por el sector privado, esté o no establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.”

Hau da, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak tokiko erakundeen arautzeko ahalmena mugatzen du; horiek foru arauak ezartzen duen arauketa-esparrua errespetatu behar dute eta, adierazi den bezala, foru arauak ahalbidetzen duen gauza bakarra da bereizketak egitea kontribuzio-gaitasuneko irizpide orokorretan oinarritutako tasen subjektu pasiboen artean.

Horrenbestez, aurretik azaldutako horretatik ondorioztatzen da honakoa: zerga-ordenantza batek berdintasun-printzipioa urratzen du baldin eta ezartzen dituen tasetan, subjektu pasiboek, horien ahalmen ekonomikoa gorabehera eta soilik udalerrian erroldatuta egoteagatik, udalerritik kanpo bizi diren subjektu pasiboek baino gutxiago ordaintzen badute, azken horiek ahalmen ekonomiko txikiagoa izan arren.

9. Era berean, berdintasunaren printzipioa mugatzen ari da udal zerbitzu eta jarduerak erabiltzeagatik ordaindu behar den ordain ekonomikoa prezio publikoari badagokio, hau da, ordain ekonomikoa, zerga izan gabe, eskubide publikoko diru-sarrera gisa kalifikatzen bada.

Figura hori aztertzeko, Arabako Lurralde Historikoan Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak egiten duen prezio publikoen arauketara jo beharra dago; horrek haxe adierazten du horren inguruan:

Lehenengo Sekzioa Xedapen Orokorra

43. Atala

Arabako Lurralde Historikoko udalek, korporazioak erabakia hartuta, eta arautegi honen barruan, prezio publikoak ezarri eta exijitu ahal izango dituzte udalaren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak burutzeagatik, baldin eta Foru Arau honen 20.1. artikuluko B) letran zehazten diren egoeretako bat ere ematen ez bada.





44. Atala

Ezin izango da prezio publikorik eskatu, Foru Arau honen 20. atalean zerrendatutako zerbitzu eta ihardueren zioz.

Bigarren Sekzioa. Ordaintzera behartuak

45. Atala

Prezio publikoak ordaindu beharra sortzen duten zerbitzu edo jardueren onura hartzen dutenek ordaindu beharko dituzte haiek.

46. Atala

Ez dute prezio publikoen ordainketa egin beharrik Administrazio publikoek, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabideen zerbitzu publikoei barneko zaizkien aprobetxamenduen eta zuzen-zuzenean hiritarren segurtasunaren edo defentsaren intereseko diren zioz.

Hirugarren Sekzioa. Zenbatekoa eta ordaindu beharra

47. Atala

1. Prezio publikoen zenbatekoak, gutxienez, emandako zerbitzuaren edo burututako jardueraren kostua estali beharko du.

2. Gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoaren arrazoiengatik gomendagarria denean, udalek aurreko lerroaldean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte. Honelako kasuetan, ateratzen den diferentzia -holakorik izanez geroestaltzeko beharrezko zuzkidurak kontsignatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan.

48. Atala

Arabako Lurralde Historikoko udalek autolikidazio bidez exijitu ahal izango dituzte prezio publikoak.

Laugarren Sekzioa. Kobraketa





49. Atala

1. *Prezio publikoa ordaintzeko eginbeharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen da; hala ere, udalek haren zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik gordailatzea exijitu ahal izango dute.*

2. *Prezio publikoa ordaintzeko beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzua egin edo jarduera ematen ez denean, dagokion kopurua itzuli egin beharko da.*

Bostgarren Sekzioa. Finkapena

50. Atala

Prezio publikoen ezarketa edo aldarazpena, indarrean dauden legeen arabera, korporazioaren Plenoaren eskumen izango da.

Horrek esan nahi du, oso eskematikoki, hiru ohar nagusi izango direla prezio publikoak definitzen dituztenak:

- Prezio publikoa administrazio-jarduera bat edo herri-administrazio batek ematen duen zerbitzu bat ordaindu eta finantzatzen duen ordain ekonomikoa da, betiere administratuek borondatez eskatutako edo jasotako zerbitzuekin edo jarduerekin lotuta badago. Gainera, sektore pribatuak eman edo burutu ditzakeen zerbitzu edo jarduerak izan behar dira.

Horrenbestez, arrunki udal prezio publikotzat jotzen dira jarduera eta zerbitzu publikoak finantzatzen dituzten tarifak, eskatzailearen bizi pribaturako edo sozialerako ezinbestekoak ez badira.

- Nahitaez jaso behar ez diren zerbitzuak edo jarduerak direnean, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenek ordaindu beharko dituzte.
- Ordaintzera behartuta daudenek ordaindutako prezio publikoak, gutxienez, zerbitzuaren kostua bete behar du eta soilik hori gomendatzen duen gizarte-, ongintza-, kultura- edo interes publikoko arrazoirik badago, tokiko erakundeak prezio publikoak zerbitzuaren kostuaren azpitik ezarri ahalko ditu. Gainera, kasu horietan, tokiko erakundeak dagozkion zuzkidurak esleitu behar ditu bere aurrekontuetan alde hori ordaintzeko.

Azkenik, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartu zuen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren aurreikuspenak aipatu behar dira, zehazki, 150.





artikulua; horrek ezartzen du erabiltzaileen berdintasun-printzipioa zerbitzuen tarifei dagokienez eta, zehazki, hauxe preskribatzen du:

“1. La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.

2. No obstante, podrán establecerse tarifas reducidas en beneficio de sectores personales económicamente débiles”

Toki udalbatzetako zerbitzuen araudiaren xedapen hori tokiko erakunde guztiak lotzen ditu eta ez dator bat zerbitzua erabiltzeagatik –erabiltzailea bizi den udalerraren arabera, eta ez ematen den zerbitzu zehatza edo erabiltzailearen egoera sozio-ekonomikoa– prezio handiagoa ordaindu beharraren alde egiten duen tarifa ereduarekin.

10. Agerikoa dirudi tokiko erakundeak errolatuta ez daudenei ematen dien kirol eta kultura jarduketan programa udalerrian errolatuta daudenei ematen diena bezalakoa dela. Horrela bada, eta ez dago bestela dela pentsatzeko arrazoirik, tokiko erakundearen gaur egungo tarifa ereduak ez du betetzen zerbitzu bera baldintza berdinetan emateagatik tarifa berdina kobratzeari buruzko printzipioa.

Bestalde, auzotasunaren datu soiletik, ezin da objektiboki eta zentzuz ondorioztatu *“ekonomikoki ahula den sektore pertsonal”* bat dagoenik. Izan ere, hori izango litzateke gure ordenamendu juridikoak tokiko erakundeei eskaintzen dien faktore bakarra biztanle-talde baten alde ezartzeko tarifa desberdin bat zerbitzu berbera emateagatik.

Hau da, tarifetan bereizketarik egitekotan, justifikatuta egon behar du horrek, onura hori eskuratzen duten obligaziodunek gaitasun ekonomiko txikiagoa dutela-eta. Horren harira, adierazi beharra dago, orain arte ez dela erakutsi Erriberabeitian errolatutako pertsonen gaitasun ekonomikoa kirol eta kultura jarduketan gainerako erabiltzaileena baino txikiagoa denik.





11. Kontuan hartu behar da, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoak, 4. artikuluan xedatutakoaren babesean, *“principio de igualdad en el acceso a los servicios públicos locales por parte de la ciudadanía”* tokiko araubide eta zuzendaritza politikoaren printzipio gidaria dela, udalerrietako gobernu-ekintza zuzentzeaz gain.
12. Udalerriek hala erabakitzen dutenean, inguruneko udalerrien arteko administrazio-partaidetzaren formulak erabiltzea zerbitzua kudeatzeko oso formula egokia eta onuragarria izan daitekeela gorabehera, gaur egun ez da adostu zerbitzua mankomunitate edo partzuergoaren bidez kudeatzea eta, beraz, zerbitzu zehatz hau eskaintzeari dagokionez, ez dago indarrean.
13. Nolanahi ere, udal-finantzen mundu zailean sakondu nahi izan gabe, tokiko erakundeak ez dira bakarrik eta eskusiboki biztanleek ordaintzen dituzten tokiko zergen arabera finantzatzen.

Pertsona batek udalerrri jakinean ordaintzen duen zerga-karga zehatzak berez ez du agortzen eta ez da konfiguratzeko pertsonaren gaitasun ekonomikoarekiko erreferentzia baliokide gisa.

Halaber, tokiko erakunde baliabideen zati garrantzitsua Itun Ekonomikoaren (zerga itunduak) baliabideen partaidetzatik dator, Arabako Tokiko Erakunde Finantzaketarako Foru Funtsen zuzkiduren bitartez. Era berean, tokiko erakundeak zerga ez-itunduetan onartzen zaien partaidetzaren kargura finantzatzen dira.

14. Zerga gutxiago ordaintze aldera dirulaguntzak emateko aukera.

Erriberabeitiko Udalak eutsitakoari jarraikiz, udal zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona guztiek tarifa berdina (tasa orokorra) ordaindu behar dute, eta *“el Ayuntamiento da una bonificación o ayuda económica a las personas que se encuentran empadronadas en el municipio”*.

Dirulaguntzak finantza-laguntza dira pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eske sozial eta ekonomikoetarako eta berariaz arautzen ditu 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzko Orokorrak.





Dirulaguntzei buruzko lege orokorrean, besteak beste, nagusi da gardentasunaren printzipioa; horregatik, administrazioek ematen dituzten dirulaguntzak publiko egin behar dituzte eta, aldi berean, nazioko datu-base bat eratu behar da emandako dirulaguntza guztien informazio aipagarria izateko.

Dirulaguntza eta Laguntza Publikoen Publikotasun Sistema Nazionalak estatuko sektore publikoak eta administrazioek emandako dirulaguntza eta laguntza publikoei buruzko informazioa du.

Erriberabeitiko Udalari dagokionez, sisteman dirulaguntzen lau oinarri daude, baina bakar bat ere ez da zerbitzu publikoak emategatiko eta administrazio jarduerak egitegatiko tasei buruzko ordenantza fiskalean xedatzen den tasa hobaridunaren ingurukoa.

Legea aplikatzearen eremu objektiboan, zioen azalpenak onetsitakoaren arabera, elementu bereizgarri bat sartzen da, dirulaguntzaren kontzeptua bestelako pareko kontzeptuetatik alderatzeko. Funts publikoak, dagoeneko eginda edo garatzear, honako bati atxikitzeaz ari da: helburua betetzeari, berariazko proiektua gauzatzeari, jarduera egiteari edo portaera berezia izateari. Atxikiak badaude, funtsak dirulaguntzak izango dira, bestelakoan, ez, ordea.

Zehazki, honako hau xedatzen du 2. artikuluko 1. idatz-zatiak:

“Se entiende por subvención, a los efectos de esta ley, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.





c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública."

Hau da, dirulaguntzen lege orokorrari buruzko zioen azalpenak dioten bezala, *"Quedan fuera de dicho ámbito objetivo de aplicación las prestaciones del sistema de la Seguridad Social y prestaciones análogas, las cuales tienen un fundamento constitucional propio y una legislación específica, no homologable con la normativa reguladora de las subvenciones. Los beneficios fiscales y beneficios en la cotización de la Seguridad Social, así como el crédito oficial, quedan, igualmente, fuera del ámbito de aplicación de la ley al no existir entrega de fondos públicos."*

2. artikuluko 4, g) idatz-zatiak beren-beregi berresten du legeak zioen azalpenean aurreratutakoa, hots, onura fiskalak dirulaguntzen eremutik kanpo gelditzen direla.

4. Idatz-zatian honako hauxe ezartzen da:

"No tienen carácter de subvenciones los siguientes supuestos:

a) Las prestaciones contributivas y no contributivas del Sistema de la Seguridad Social.

b) Las pensiones asistenciales por ancianidad a favor de los españoles no residentes en España, en los términos establecidos en su normativa reguladora.

c) También quedarán excluidas, en la medida en que resulten asimilables al régimen de prestaciones no contributivas del Sistema de Seguridad Social, las prestaciones asistenciales y los subsidios económicos a favor de españoles no residentes en España, así como las prestaciones a favor de los afectados por el virus de inmunodeficiencia humana y de los minusválidos.

d) Las prestaciones a favor de los afectados por el síndrome tóxico y las ayudas sociales a las personas con hemofilia u otras coagulopatías congénitas que hayan desarrollado la hepatitis C reguladas en la Ley 14/2002, de 5 de junio.





e) Las prestaciones derivadas del sistema de clases pasivas del Estado, pensiones de guerra y otras pensiones y prestaciones por razón de actos de terrorismo.

f) Las prestaciones reconocidas por el Fondo de Garantía Salarial.

g) Los beneficios fiscales y beneficios en la cotización a la Seguridad Social.

h) El crédito oficial, salvo en los supuestos en que la Administración pública subvencione al prestatario la totalidad o parte de los intereses u otras contraprestaciones de la operación de crédito.”

Horrenbestez, Arartekoa ez dago ados tasa hobariduna laguntza edo dirulaguntza izatearekin, zuzenean tasaren kuota osatzen baitu eta ehuneko berrogeita hamar murrizten baitu.

Aurrekoari eutsiz, dirulaguntzak ezin daitezke udalerrian errolatutakoen zergakarga murrizteko baliozko bide izan, dirulaguntzei buruzko legedi orokorrak berez baztertzen dituelako onura fiskalak dirulaguntzen aplikazio-eremutik.

Azaldutakoa kontuan hartuta, zerga-legeriak eta tokiko ogasunen arauketak berak udalei ahalmena ematen diete ordenantza fiskaletan aukerako onurak ezartzeko. Alabaina, balizko onura horiek ezinbestez lotzen ditu onuradunek gaitasun ekonomiko txikiagoa izateari.

15. 2020ko otsailaren 21eko 21 zenbakidun Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasei buruzko ordenantza fiskalaren aldaketan xedatutako tasa zehatzak indarrean sartzea.

Ordenantza fiskalak zehaztutako tarifa zehatzak indarrean sartzeko Erriberabeitiko Udalean 2020ko urtarrilaren 13an egin zen ohiko bilkuran kontrako balorazioak izan ziren, saioaren inguruko aktan idatzitakoarekin bat etorritz. Taseen ordainketak zerbitzuen erabiltzaileekiko ondoreak aintzat hartuta, Arartekoak eztabaida zabaldu nahi du, anonimo bihurtu ondoren.





Zehazki, saioan hurrengo hau planteatu zen:“(...) *aunque se apruebe esta tasa, su entrada en vigor va a ser el día siguiente de la publicación en el Boletín y este año ya se está exigiendo y cobrando a los vecinos desde el mes de septiembre u octubre. Eso es irregular, si va a entrar en vigor cando lo mandemos al Boletín. ¿Cómo es que se está aplicando ya?*”

“(...) Y sobre por qué se está cobrando antes de que se publique en el Boletín es porque la gente que se ha apuntado, la mayoría es empadronada y entonces, les coincide el precio con el anterior que estaba estipulado en la Ordenanza.”

“(...) es más fácil devolverles el dinero que pedírselo luego”

Zerbitzu publikoen tarifak eguneratzeko ordenantza fiskalaren aldaketa onetsi eta aldizkari ofizialean argitaratu behar da. Hala, tarifa berriak ezin daitezke aplika aldizkari ofizialean behin betiko argitaratuta ez dauden bitartean.

Horri dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak tokiko ordenantzak onesteko prozedura zein den zehazten du 49. eta 70.2 artikuluetan. Bertan, honako hau dio, hitzez hitz:

Toki-ordenantzak onartzeko prozedura hau bete behar da:

- a) Osoko bilkurak hasierako onarpena ematea*
- b) Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.*
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.*

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da. (49. Artikulua)





Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, (...) probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. (...) (70.2 Artikulua)

39/1988 Legeko 17. artikulua hizpide du ordenantza fiskalak gauzatu, argitaratu eta publiko egitea eta, zehazki, hala dio:

"1. Los acuerdos provisionales adoptados por las corporaciones locales para el establecimiento, supresión y ordenación de tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las aprobaciones y modificaciones de las correspondientes ordenanzas fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la Entidad durante treinta días, como mínimo, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

2. Las entidades locales publicarán, en todo caso, los anuncios de exposición en el boletín oficial de la provincia, o, en su caso, en el de la comunidad autónoma uniprovincial. Las diputaciones provinciales, los órganos de gobierno de las entidades supramunicipales y los ayuntamientos de población superior a 10.000 habitantes deberán publicarlos, además, en un diario de los de mayor difusión de la provincia, o de la comunidad autónoma uniprovincial.

3. Finalizado el período de exposición pública, las corporaciones locales adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

4. En todo caso, los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el boletín oficial de la provincia o, en su caso, de la comunidad autónoma uniprovincial, sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.





5. Las diputaciones provinciales, consejos, cabildos insulares y, en todo caso, las demás entidades locales cuando su población sea superior a 20.000 habitantes, editarán el texto íntegro de las ordenanzas fiscales reguladoras de sus tributos dentro del primer cuatrimestre del ejercicio económico correspondiente.

En todo caso, las entidades locales habrán de expedir copias de las ordenanzas fiscales publicadas a quienes las demanden.”

Arauketa zehatz hori oso antzera aurrez ikusten du 41/1989 Foru Arauak, uztailaren 19koak, Arabako Tokiko Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan.

Adierazi behar da aurreikuspen horiek tokiko erakundeek nahitaez aplikatu behar dituztela eta, ondorioz, ezin dituztela modulatu, ezta baztertu ere jardueren balio gabetasunaren akatsean erori gabe.

Gai honetako jurisprudentzia konstantea da, eta prozeduraren garrantzia azpimarratzen du; batik bat, informazio publikoari eta erabakiak aldizkarietan argitaratzeari dagokienez, azkenekoak segurtasun juridikoaren printzipioa arriskuan jartzen duen neurrian. Are gehiago, funtsezkotzat jotzen dituen bi izapide horietako edozein ez gauzatzea ordena publikoaren okertzat hartzen du, eta horrela onartutako ordenantza nahiz ordenantza aplikatzerakoan gauzarazi diren ordainketak guztiz balio gabe geratzea eragiten duela azaltzen du.

“cuando se trata de disposiciones de carácter general, el quebrando del cauce formal de su elaboración, es decir, la vulneración de una norma de superior jerarquía reguladora del procedimiento a seguir en la creación de la disposición reglamentaria, produce, como regla general, la nulidad de pleno derecho de la disposición (...) y ello porque sólo siguiendo tal cauce formal, que implica un límite al ejercicio de la potestad normativa, se garantiza la legalidad, acierto y oportunidad de una disposición que pasa a integrar el ordenamiento jurídico.” (1988-05-10 Auzitegi Gorenaren Epaia, FJ 2) (arauen publizitate-printzipioari eta segurtasun juridikoaren printzipioari buruz, besteak beste, 2011ko abenduaren 19ko RJ\2012\2902 Auzitegi Gorenaren Epaia (administrazioarekiko auzietarako sala, 2. atala) eta 2001eko urriaren 18ko RJ\2002\2722 Auzitegi Gorenaren Epaia (administrazioarekiko auzietarako sala, 2. atala).





16. Beraz, Arartekoak azpimarratu behar du tokiko erakundeek onura fiskalak erabakitzeko, tokiko ogasunen arloari eta zerga-legediari erreparatu behar dietela ezinbestez.

Udalerrian zergaduna izatea edo auzotasuna, printzipioz, inguruabar pertsonala da eta ezin da izan *per se* prezio publiko bat kuantifikatzeko faktorea, ez baitu agerian uzten “ekonomikoki ahula den sektorea”.

Ondorioz, udal prezio publikoetan zein tasetan auzotasun-irizpidea jasotzeak, ordaindu beharreko zenbatekoa ezartzerakoan edo bertako biztanleen aldeko deskontuak edo hobariak ezartzerakoan, berdintasuneko, diskriminaziorik ez egiteko eta botere publikoen arbitraltasun debekuaren inguruko konstituzio-printzipioen aurkako diskriminazioa eragiten du.³

Erriberabeitiko Udalak bermatu behar die erabiltzaileei berdintasunaren printzipioa udal-zerbitzuengatik tarifak ezartzen dituenean (EK, 14. artikulua). Izan ere, hori nabarmentzeko alderdia da.

Era berean, Erriberabeitiko Udalak nahitaez ziurtatuko du udal zerbitzu publikoen erabiltzaileei onetsi eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako tarifak bakarrik erreklamatzea.

Hori guztia dela eta, gomendio hau egiten diogu Erriberabeitiko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak-11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat:

³ EK. 9. Artikulua 1- *Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.*

2.- *Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomiam kultura- eta gizarte-bizitzan ere.*

3.- *Konstituzioak bermatzen ditu legezketasunprintzipioa, arauen arteko hierarkia, arauen publikitatea, xedapen zehatzaileen atzeraeragin eza -xedapenok banakako eskubideei begira onuragarri izan ez edo eskubideok murrizten dituztenean-, segurtasun juridikoa, erantzukizuna, eta botere publikoen nahierakeriaren debekua”*



Gomendia

Programatzen dituen kirol eta kultura jardueren tarifak berraztertzea eta udal zerbitzu eta jarduera publikoen erabiltzaileentzat tarifa hobaridunak zehazteko orduan, erroldatua egoteari nahiz erabiltzaileen ahalmen ekonomikoan oinarritzen ez den edozein inguruabarri buruzko aipamena ezabatzea.

Halaber, bidezkoa litzateke Erriberabeitiko Udalak kirol instalazioetako erabiltzaileei Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako tasen zenbatekoaren gainean gehiegiz kobratutakoa itzultzea. Nolanahi ere, zenbatekoak kopuru hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako ordenantza fiskalean aurrez ikusitako aurreikuspenera egokitzearen artekoa izan beharko luke.

